



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urriaren 17a

120. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00116. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontratazio publikoko prozesuak alda ditzan. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean izapidetzea (3. or.).
- 11-25/DEC-00036. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Arreta Defizitaren eta Hiperaktibitatearen Nahasmenduaren Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (3. or.).
- 11-25/DEC-00037. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/POR-00356. Galdera, Eraldaketa Komunitarioaren Bulegoaren ezarpenaren balorazioari buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (5. or.).
- 11-25/POR-00357. Galdera, LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialerako II. Ekintza Planari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (5. or.).
- 11-25/PES-00357. Galdera, Euskararen Nafarroako Institutuak Sakanako Mankomunitateari emandako dirulaguntzari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (6. or.).
- 11-25/PES-00358. Galdera, Larrauko mendatea irekitzeari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (6. or.).
- 11-25/PES-00359. Galdera, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautu eta arte-irakaskuntza profesionalen antolaketa eta baliokidetasunak ezartzen dituen ekainaren 7ko 1/2024 Legearen ezarpenari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (7. or.).
- 11-25/PES-00360. Galdera, Cintruénigoko La Paz BHIa handitzeko obren hasierari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).
- 11-25/PES-00361. Galdera, Letizia Ortiz Lanbide Heziketako 2025-2026 ikasturteari hasiera ofiziala emateko ekitaldian parte hartzeari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (8. or.).

- 11-25/PES-00362. Galdera, Migratzaileentzako Kulturarteko Bitartekaritza Komunitarioko Zerbitzua izeneko zerbitzu-kontratuaren lizitazioari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (9. or.).
- 11-25/PES-00363. Galdera, Sendaviva parkeari buruzko kanpo-auditoretzari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/PES-00364. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Israelekin dituen proiektuei buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/PES-00365. Galdera, Catella Group-ek kudeatutako alokairuko etxebizitza babestuetan alokatutako 168 familien jarraitutasuna bermatzeko arazoei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00366. Galdera, Nafarroan goi-tentsioko sarerik ez duten eremuei buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00367. Galdera, Miranda Argako ikastetxe publiko berriaren proiektuari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (12. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-25/ACOP-00021. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, 2023ko urriaren 7ko atentatu terroristen bigarren urteurrena dela-eta (13. or.).
- 11-25/ACOP-00023. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Gazan egiten ari diren genozidioa gaitzesteari buruzkoa (13. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00116. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita kontratazio publikoko prozesuak alda ditzan

EKONOMIA ETA OGASUNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean izapidetu dadin Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita kontratazio publikoko prozesuak alda ditzan. Mozioa 2025eko irailaren

26ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/DEC-00036. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Arreta Defizitaren eta Hiperaktibitatearen Nahasmenduaren Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Arreta Defizitaren eta Hiperaktibitatearen Nahasmenduaren Egunaren ospakizunarekin; hori dela-eta, ekitaldi bat antolatu du, ADHIrekin batera,

zeina Nafarroako Parlamentuaren atalondoan egiten baita, urriaren 27an, astelehena, 12:30ean.

2. Nafarroako Parlamentuak erabaki du bere fatxada laranja kolorez argizatzea urriaren 27an”.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/DEC-00037. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Hartara, heldu den urriaren 17an ekitaldi bat egingen du, Parlamentuko atalondoan, 12:00etan, Gizarte Entitateen Plataformarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak eutsi egiten dio pobrezia eta desberdinkeriaaren aurka duen konpromiso irmoari.

3. Nafarroako Parlamentuak funtsezkotzat jotzen du erronka global berriei aurre egitea, areagotu egin baitituzte desberdinkeria gure gizartean, eta are gehiago herrialde txirotuetan.

4. Nafarroako Parlamentuak olan bat jarriko du bere fatxadan, Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Egunaren oroitzapenez”.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00356. Galdera, Eraldaketa Komunitarioaren Bulegoaren ezarpenaren balorazioari buruzkoa

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, Eraldaketa Komunitarioaren Bulegoaren ezarpenaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urtebete baino gehiago igaro da garapen-entzuen eta tokiko ekintza-taldeen eskutik Eraldaketa Komunitarioaren Bulegoak ezarri zirenetik, energia-erkidegoak sortzen eta garatzen laguntzeko:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Eraldaketa Komunitarioaren Bulegoen ezarpenari eta egindako lehen urratsei buruz?

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-25/POR-00357. Galdera, LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialerako II. Ekintza Planari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialerako II. Ekintza Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi jakin dugu taxutze-fasean dagoela LGBTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialerako II. Ekintza Plana. Departamentuak zer bilatzen du plan hori abian jarrita?

Iruñean, 2025eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-25/PES-00357. Galdera, Euskararen Nafarroako Institutuak Sakanako Mankomunitateari emandako dirulaguntzari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Euskararen Nafarroako Institutuak Sakanako Mankomunitateari emandako dirulaguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Talde Mistoko eta VOXeko foru parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuari, idatziz erantzun diezaiola:

Sakanako Mankomunitateak Euskararen Nafarroako Institutuari emandako dirulaguntzatik, zenbat diru publiko bideratu da 2015eko urtarrilaren 1etik 2025eko urriaren 1era bitarte Euskal Udalekuak erakundeak Bernedon, Abaigarren eta Goñin antolatutako kanpamentuak diruz laguntzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/PES-00358. Galdera, Larrauko mendatea irekitzeari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Larrauko mendatea irekitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Kontuan hartuta neguan, orain arte, itxita egon dela Larrauko mendateko pasabidea, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak elkarriketarik izan al du Pirinio Atlantikoetako Depar-

tamentuko agintariekin, negu honetan Larrauko mendatea irekitzeko?

Zer aurreikuspen darabil Lurralde Kohesiorako Departamentuak horri dagokionez?

Larrauko mendatea aurtengo neguan ere itxita egonen al da?

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/PES-00359. Galdera, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautu eta arte-irakaskuntza profesionalen antolaketa eta baliokidetasunak ezartzen dituen ekainaren 7ko 1/2024 Legearen ezarpenari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautu eta arte-irakaskuntza profesionalen antolaketa eta baliokidetasunak ezartzen dituen ekainaren 7ko 1/2024 Legearen ezarpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunari, idatziz erantzun diezaion:

Goi-mailako arte-irakaskuntzak arautu eta arte-irakaskuntza profesionalen antolaketa eta baliokidetasunak ezartzen dituen ekainaren 7ko 1/2024 Legearen azken xedapenetako bederatzigarrenak ezartzen duenez, Gobernuak, autonomia-erkidegoei iritzia eskatu ondoren, legea ezartzeko egutegia onetsiko du lege onesten denetik gehienez ere urtebeteko epean.

Zertan da 1/2024 Legearen ezarpena Nafarroan?

Departamentuak zer data eta epe ezarri du lege honen ezarpen osoa finkatzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-25/PES-00360. Galdera, Cintruénigoko La Paz BHIa handitzeko obren hasierari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Cintruénigoko La Paz BHIa handitzeko obren hasierari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Cintruénigoko Udalak hasiak dituen La Paz DBHI handitzeko beharrezkoak diren ondoko lursailak erosteko izapideak, Nafarroako Gobernuak konprometitzen al da Hezkuntza Departamentuaren bidez alait lasterren abiaraztera Cintruénigoko La Paz DBHI handitzeko obrak?

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/PES-00361. Galdera, Letizia Ortiz Lanbide Heziketako 2025-2026 ikasturteari hasiera ofiziala emateko ekitaldian parte hartzeari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Letizia Ortiz Lanbide Heziketako 2025-2026 ikasturteari hasiera ofiziala emateko ekitaldian parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

sean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzuteko:

Joan den ostiralean, urriak 3, Letizia Ortiz Rocasolano herritarrak, arrandiaz eta hotsandiz, Lanbide Heziketako 2025-2026 ikasturtearen irekiera ofizialean parte hartu zuen Irunberriko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu Politeknikoan. Ekitaldi horretan Gobernuak lehendakariak eta Hezkuntzako kontseilariak ere parte hartu zuten.

Herritar horrek gure herriaren Estatuburutza ondarearen duen familiaren ordezkari gisa gure erkidegora egun gutxiren buruan egindako bigarren bisita izan da.

Nafarroako Gobernuak monarkiaren halako gorespen anakronikoa egiteak bete-betean talka egiten du Nafarroako Parlamentuaren agindutako politikoarekin –Parlamentua Nafarroako herriaren subiranotasun demokratikoaren egoitza da–; izan ere, legegintzaldi honetan bertan, 2024ko ekainaren 13ko Osoko Bilkuran hain zuzen ere, “balio errepublikanoekiko konpromiso irmoa” adierazi zuen Parlamentuak.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariari:

1. Zein erakunde edo estamentuk proposatu zuen Letizia Ortiz Rocasolano herritarra Irunberriko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu Politeknikoan egon zedin Lanbide Heziketako 2025-2026 ikasturtearen irekiera ofizialean?

2. Nafarroako Gobernuak ez al du uste kontraesankorra eta desegokia dela jaraunspen-erakunde ez-demokratiko baten ordezkari den herritar batek arrandiaz parte hartzea ikastetxe publiko batean ikasturtea irekitzeko ekitaldian, zeinaren eginkizun

nagusia Nafarroako ikasle guztiei aukera- eta helburu-berdintasuna bermatzea baita?

3. Nafarroako Gobernuak ez al du uste Gobernuak kontraesana dagoela hori bezalako gorespen monarkikoko egintzen eta Nafarroako herriaren subiranotasun demokratikoaren egoitza den Nafarroako Parlamentuak 2024ko ekainaren 13ko Osoko Bilkuran adierazitako konpromiso errepublikanoaren artean?

Iruñean, 2025eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/PES-00362. Galdera, Migratzaileentzako Kulturarteko Bitartekaritza Komunitarioko Zerbitzua izeneko zerbitzu-kontratuaren lizitazioari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Migratzaileentzako Kulturarteko Bitartekaritza Komunitarioko Zerbitzua izeneko zerbitzu-kontratuaren lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Gobernuak zer erabaki hartu du Nafarroako Foru Komunitateko Migratzaileentzako Kulturarteko Bitartekaritza Komunitarioko Zerbitzua izeneko zerbitzu-kontratuaren lizitazioa hutsik geratu ondoren?

Iruñean, 2025eko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00363. Galdera, Sendaviva parkeari buruzko kanpo-auditoretzari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Sendaviva parkeari buruzko kanpo-auditoretzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Joan den uztailaren 1ean, komunikabideek informatu zutenez, Parquenasa SAK, Sendaviva parkearen jabe den sozietateak, hura osatzen duten bazkideei —NICDO sozietate publikoa, La Información taldea, Hiscan Patrimonio y Pronaocio SLU— jakinarazi zien hurrengo asteetan kanpoko erakunde baten bidez ikuskatuko zela 2023an lizitatutako ingeniari zibileko obra-kontratuen eta parkearen tematizazioaren adjudikazioa.

Nafarroako Gobernua, NICDO enpresa publikoaren bidez, Parquenasa SAren akzioduna da, eta, gainera, haren administratzaile bakarra izateko erantzukizuna du. Beraz, eskertuko genuke galdera hauei erantzutea:

1.- Noiz kontratatu da kanpoko auditoria hori?

2.- Zer enpresak egingen du auditoria?

3.- Zer kostu izan du auditoriak?

4.- Noizko aurreikusten da auditoriaren emaitzak ezagutzea?

Iruñean, 2025eko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-25/PES-00364. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Israelekin dituen proiektuei buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Israelekin dituen proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Zer ikerketa-proiektu, aldebiko akordio edo kontratu sinatu dira 2020tik aitzina NUPen eta Israelgo erakunde publiko edo pribatuen artean? Horietako zein dago gaur egun indarrean? Zein da horien zenbateko ekonomikoa?

Iruñean, 2025eko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-25/PES-00365. Galdera, Catella Group-ek kudeatutako alokairuko etxebizitza babestuetan alokatutako 168 familien jarraitutasuna bermatzeko arazoei buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Catella Group-ek kudeatutako alokairuko etxebizitza babestuetan alokatutako 168 familien jarraitutasuna bermatzeko arazoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazte-

riako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Arazoak daude bermatzeko 168 familia maizterrek jarraitzea Sarrigurengo Badostaingo Atea plazako, Ibia plazako eta Elizmendi kaleko alokairu-araubideko etxebizitza babestuetan, zeinak Catella Group funts suediarrek kudeatzen baititu. Jakin badakigu elkarrizketak izaten ari direla enpresa horrekin, familia horiek jarraitzea ahalbidetzeko, alokairuaren gehieneko prezioa ezartzen duten formulak aplikatuz.

Gai horrek gizartean duen garrantzia eta familiei eragiten dien ziurgabetasuna kontuan hartuta, honako galdera hauek egiten dira:

Zertan da Catella Group enpresarekiko kontaktuak?

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik enpresa horrekin akordio batera iristeko hark 168 familiek beren etxebizitzetan jarraitzea bermatzen?

Zer formula edo irtenbide baloratzen ari dira?

Zer aurreikuspen darabil Nafarroako Gobernuak horri buruz?

Iruñean, 2025eko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/PES-00366. Galdera, Nafarroan goi-tentsioko sarerik ez duten eremuei buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, Nafarroan goi-tentsioko sarerik ez duten eremuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2025eko urriaren 9ko kontroleko Osoko Bilkuran, Industriako kontseilariak, MITECOren plangintza elektrikoaren proposamenari buruzko ahozko galderari erantzunez adierazi zuen ia lurralde osoak izanen dituela behar beste elektrizitate garraiatzeko gai izanen diren goi-tentsioko sareak. Nafarroako zer eremuk ez du izanen behar beste elektrizitate garraiatzeko gai izanen den goi-tentsioko sarerik?

Iruñean, 2025eko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

11-25/PES-00367. Galdera, Miranda Argako ikastetxe publiko berriaren proiektuari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Miranda Argako ikastetxe publiko berriaren proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunari, idatziz erantzun diezaion:

Azpiegiturei buruzko 2024ko plan zuzentzailean, Miranda Argan udal-titulartasuneko ikastetxe berri bat eraikitzeko proiektua jasotzen zen. Zertan da Miranda Argako ikastetxearen proiektua?

Iruñean, 2025eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/ACOP-00021. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, 2023ko urriaren 7ko atentatu terroristen bigarren urteurrena dela-eta

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehenengoa:

1. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak gogorarazten eta berresten du irmoki gaitzesten dituela 2023ko urriaren 7ko atentatu terroristak, eta bere elkertasuna adierazten die biktimen nahiz oraindik bahituta daudenen senitarteko eta gertukoei.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak irmotasunez gaitzesten du Gazan egiten ari diren genozidioa, eta, bere erantzukizunaz jabetuta, bat egiten du Gazan genozidioa geldiarazteko eskura ditugun baliabide guztiak erabiltzeko betebeharrak legal eta morala betetzeko Nazio Batuek egindako deiarekin.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, halaber, Palestinako herriarekiko babesaren eta Gazako bakearen defentsan duen konpromiso gorena adierazi nahi ditu, bai eta babes sendoena eman ere Nafarroako gizarteari, modu baketsuan mobilizatzen ari baita Israelen erasoaren amaiera eskatzeko eta genozidio hori salatzen.

4. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bere sentsibilitatea adierazi nahi du CCOO, UGT, LAB, Solidari, Steilas, Hiru, ESK eta CGT sindikatuak, besteak beste, deitutako lanuzte partzialen deialdiaren arrazoien aurrean, baita ELA sindikatuak deitutako grebaren inguruan ere –biak ere datoren urriaren 15ean izanen dira–.

5. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Israelen eta Hamasen arteko negoziazio-prozesuaren akordioaren ondoren, Israelen eraso militarra eta bahituen gatibualdia berehala amaiazteko nahi du, Palestinako lurraldeetan bakea lehenera ekartzea eta bertako biztanleei laguntza humanitarioa ematea. Espero dugu, gainera, prozesu hori baliagarria izatea bi estatuen (Israel eta Palestina) konponbidean aurrera egiteko, bake justu eta iraunkorra lortzeko bide gisa, nazioarteko legedia eta Nazio Batuen ebazpenak betez.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ACOP-00023. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Gazan egiten ari diren genozidioa gaitzesteari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 13an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehenengoa:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak irmotasunez gaitzesten eta arbuatzen du Gazan egiten ari diren genozidioa, eta, bere erantzukizunaz jabetuta, bat egiten du Gazan genozidioa geldiarazteko eskura ditugun baliabide guztiak erabiltzeko betebeharrak legal eta morala betetzeko Nazio Batuek egindako deiarekin.

razteko eskura ditugun baliabide guztiak erabiltzeko betebeharrak legal eta morala betetzeko Nazio Batuek egindako deiarekin.

2. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak 2023ko urriaren 7ko atentatu terroristak gaitzesten eta arbuatzen du, biktimak gogoratzen ditu eta bere elkertasuna adierazten die biktimen nahiz oraindik bahituta daudenen senitarteko eta gertukoei.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, halaber, Palestinako herriarekiko babesa eta Gazako bakearen defentsan duen konpromiso gorena adierazi nahi ditu, bai eta babes sendoena eman ere Nafarroako gizarteari, modu baketsuan mobilizatzen ari baita Israelen erasoaren amaiera eskatzeko eta genozidio hori salatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bere sentsibilitatea adierazi nahi du CCOO, UGT, LAB, Solidari, Steilas, Hiru, ESK eta CGT sindikatuak, besteak beste, deitutako lanuzte partzialen deialdiaren arrazoen aurrean, baita ELA sindikatuak deitutako grebaren inguruan ere –biak ere datorren urriaren 15ean izanen dira–, eta herritarrei dei egiten die horietan parte har dezaten.

5. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Israelen eta Hamasen arteko negoziazio-prozesuaren akordioaren ondoren, Israelen eraso militarra eta bahituen gatibualdia berehala amaiaraztea nahi du, eta Palestinako lurraldeetan bakea lehenera ekartzea eta bertako biztanleei laguntza humanitaria ematea. Espero dugu, gainera, prozesu hori baliagarria izatea bi estatuen (Israel eta Palestina) konponbidean aurrera egiteko, bake justu eta iraunkorra lortzeko bide gisa, nazioarteko legedia eta Nazio Batuen ebazpenak betez.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

